

# Azterketak



Errentaren banaketa, fiskaltasuna,  
ekonomi zailtasunak  
eta enpresa publikoak Nafarroan

## Desorekak Nafarroan

**ELAko Azterketa Bulegoa**



# Non zer

SARRERA .....	3
---------------	---

## ERRENTAREN BANAKETA NAFARROAN

0. Sarrera .....	4
1. Errentaren banaketa .....	4
2. Ondorioak .....	6

## NAFARROAKO FISKALTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

1. Zerga itunduen bilketa nafarroan. 2008koa eta 2007koarekiko bilakaera .....	7
2. Zerga itunduen bilketa nafarroan. 2009ko urtarrila-maiatza, 2008ko epealdi berdinarekiko .....	10
3. Zerga itunduen presio fiskala Nafarroan. 2008koa eta 1998koarekiko bilakaera .....	11
4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ). Nafarroa, 2007koa eta 2001ekoarekiko bilakaera .....	15

## EKONOMI ZAILTASUNEN

### EZAUGARRI ETA BILAKAERA NAFARROAN

0. Sarrera .....	19
1. Emaizten azterketa .....	20
2. Zailtasunen bilakaera .....	23
3. Ondorioak .....	24

## “NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA, S.L.U.”

### SORTZEAREN INGURUAN ELA-REN BALORAZIOA

0. Sarrera .....	26
1. Foru Legearen Edukia .....	27
2. ELAren balorazioa .....	28

---

## SARRERA

Txosten honek Nafarroako gai ezberdinei buruzko lau atal ditu. Lehen atalean, Foru Erkidegoan errentaren banaketarekin gertaturikoa aztertzen dugu. Ekonomi hazkundean egon, zein krisi egoeran, aberastasunaren banaketa beti langileriaren kaltetan ematen dela ikusten dugu atal honetan.

Bigarren atalean, Nafarroan fiskaltasunarekin gertaturikoa ikusiko dugu; zehazki, zerga bilketarekin, presio fiskalarekin, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitorturiko batezbesteko errentarekin gertaturikoa aztertuko dugu. Ondorioak argiak dira: zerga bilketa murrizten ari da, baina lan errenten pisua eta zerga iruzurra, aldiz, handitzen.

Hirugarren atalean hilabete bukaerara heltzerakoan nafar gizarteak dituen zailtasunak aztertzen ditugu. Atal honek agerian uzten du jendearen ekonomi zailtasunak ez direla murriztu ekonomi hazkunde garaian.

Txostenaren azken atalean Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren, S.L.U. ren sorrera kritikatzeko, Nafarroako jardun publikoaren privatizazioan beste aurrerapauso bat dakarrelako. Are gehiago, kapital publikodun enpresa pribatuen existentzia bera kritikatzeko, Administrazioa bere funtzioetan ordezkatzeko, eta negozioa egiteko sortzen baitira hauek.

Txostenaren atal ezberdinek ondorio berdinerara garamatzate: ekonomi hazkunde garaian, zein krisialdian, beti galtzen du langile klaseak, bereziki ahulenak. Zalantzarik gabe, txosten honetan aztertutak bezalako politika publikoek (fiskaltasuna edo pobrezia-aren aurkako borroka, adibidez) zerikusi handia dute bidegabekeria honekin. Horrela ba, argi dago gure borrokaren parte bat politikak aldatzera zuzendu behar dugula, kapitalaren errentak eta errenta altuak mesedetzea uzten duten politikak eta gizarte osoaren onura bilatzen duten politikak lortzeko.

# ERRENTAREN BANAKETA NAFARROAN

## 0. SARRERA

Sortzen den errenta modu ezberdinean banatzen da pertsonen eta gizarte-klaseen artean. Ekonomiaren hazkunde garaian, errentaren banaketaren bilakaera kaltegarri suertatu zaio langileriari, eta onurak ekarri dizkio, berriz, enpresaburuen eta kapitalaren errentei. Azterketa honetan, errentaren banaketaren inguruan, 2008an gertaerikoa ikusiko dugu.

## 1. ERRENTAREN BANAKETA

Nafarroako BPGd-a 1.043,1 miloi eurotan hazi zen 2007tik 2008ra (18.428,5 miloi eurotik, 19.471,6 milioietara pasaz), horrek esan nahi du %5,4eko gehikuntza netoa gertatu dela (%1,9koa termino errealean).

Hala ere, 2008ko azken hiruhilabetekoan, krisi ekonomikoaren ondorioak argi nabaritu ziren.

Errentaren banaketa aztertuz, 2007tik 2008ko epealdian lan errentak BPGd-arekiko 0,6 puntu galdu dituztela ikus dezakegu (%44,7tik %44,1era pasaz), ustiapen soberakin gordina (enpresaburuen eta kapitalaren errentak) BPGd-arekiko 1,3 puntu hazi den bitartean (%43,3tik, %44,6era pasaz).

Datu hauek eurotan bihurtuz, eta 2007an BPGd-arekiko zegoen partaidetza mantenduz gero, soldatapeko biztanleriak 111,9 miloi euro gehiago irabazi izanen zituen 2008an.


### Errentaren banaketa Nafarroan (BPGd %). 2007-2008

	2007	2008
Soldatapeko langileen ordainketa	44,7	44,1
Ustiapeneko soberakin gordina	43,3	44,6

*Iturria: IEN*

Errentaren banaketaren bilakaera 2000. urtetik aztertuz (ez baitugu lehenagoko informazio homogeneorik), argi geratzen da aberastasuaren banaketa soldatapekoen kaltetan egin dela beti, ustiapen soberakin gordinak onurak atera dituen bitartean, errentan bere pisua handituz.

#### Errentaren banaketa Nafarroan (BPGd %). 2000-2008



*Iturria: IEN*

Soldatapeko langileen ordaina 2000an BPGd-aren %47,0 izan zen, eta 2008an %44,1 izatera pasa da, hau da, 2,9 puntu galdu ditu 8 urteetan.

Soldatapeko langileen ordainketak BPGd-ean galdu duen partaidetzarengatik, 564,6 milioi euro irabazi gabe utzi ditu 2000tik 2008ra, eta soldatapeko langile bakoitzak 2.427 euro utzi ditu irabazi gabe urtean batuz beste.

#### Lanaren errenten galera. Nafarroa, 2007-2008

Lanaren errentak, guztira	564,6 milioi euro
Soldatapeko langile bakoitzeko	2.427 euro

*Iturria: IEN*

Ustiapeneko soberakin gordinak, berriz, errentaren banaketan bere partaidetza handitu du, 2000ko %43,0tik, 2008ko %44,6era pasaz, 1,6 puntuko handitzea.

---

## 2. ONDORIOAK

Iazko urte arte hazkunde ekonomiko garaia bizi izan dugu. Ezarritako politiken emaitza (Gobernuak ezarriak, eta enpresetan ezarri direnak) errentaren banaketaren bilakaeran antzematen da. 2008an, oraingo ekonomia fase berri honetako lehen urtean, lanaren errentak indarra galdu dute aberastasunarekiko, enpresaburuen eta kapitalaren errentak beren partaidetza handitu duten bitartean. Honela, krisiaren ondorioek ez gaituztela denoi berdin eragiten argi geratzen da, langileria baikara kaltetuak.

Modu honetan hazkunde ekonomikoa eman den azken urteetako bilakaera mantentzen da. Hau da, bai hazkunde ekonomiko garaian, zein hazkunde gabeko garaian, ustiapen soberakin gordinak indarra hartzen jarraitzen du BPGd-ean.

Oraingo egoera ekonomikoan soldatapekoen ordainketak BPGd-ean pisua galtzeak, eta enpresaburu eta kapitalaren errentak irabazteak, krisiaren ondorioak nora bideratzen ari diren adierazten du. Lanaren errentek, krisiaren errudun ez direnak, krisiarengatik kaltetuak dira. Bien bitartean, enpresaburu eta kapitalaren errentak partaidetza handiagoa irabazten dute.

Politika publikoek enpresa eta kapitalaren irabaziak krisitik indartuta ateratzea bilatzen dute, eta honek, egoera are larriagoa bihurtuko du.

---

# NAFARROAKO FISKALTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

## 1. ZERGA ITUNDUEN BILKETA NAFARROAN. 2008KOA ETA 2007KOAREKIKO BILAKAERA

Nafarroako Ogasunak 3.181,5 milioi euro bildu ditu 2008an, hau da, 2007an baino %11,5 gutxiago.

Bilketa handiena eragin duten zergak honako hauek dira:

- PFEZren bidez, 1.156,6 milioi euro bildu dira, hau da, diru-sarreraren %36,4.
- BEZaren bitartez, 899,5 milioi euro jaso dira, alegia, gutzitzailearen %28,3.
- Sozietateen gaineko Zergak 419,3 milioi euroko bilketa –diru-sarreraren %13,2– eragin du.
- Zerga Berezien zioz, 411 milioi euro bildu dira, hots, %12,9.

2008an hazi den zerga bakarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga izan da (%6,8ko hazkundera). Gainerako zergen ondoriozko diru-bilketak gutxitu egin dira 2007ko urtealdikoaren aldean: Sozietateen gaineko Zergak eragindako bilketa aurreko urtekoa baino %29,3 txikiagoa izan da, BEZak eragindakoa %23,1 txikiagoa, eta zerga bereziak %2,1 murriztagoia.

### Zerga garrantzitsuenen ondoriozko diru-bilketa, zerga mota kontuan hartuta, egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2008-2007

	2008	2007-2008	
	Milioi €	%	Ald. %
PFEZ, GUZTIRA	1.156,6	36,4	6,8
BEZ	899,5	28,3	-23,1
SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA	419,3	13,2	-29,3
ZERGA BEREZIAK	411,0	12,9	-2,1
BESTE BATZUK	295,2	9,3	-10,6
GUZTIRA	3.181,5	100	-11,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa*

Zuzeneko eta zeharkako zergen bidez, honako zenbateko hauek bildu dira:

- 1.701,3 milioi euro, hots, guztizkoaren %53,5, zuzeneko zergen bidez.
- 1.445,9 milioi euro, alegia, diru-sarreraren %45,4, zeharkako zergen ondorioz.

Zuzeneko zergek %5,1eko gutxipena izan dute 2008ko urtealdian zehar, zeharkakoak %18,2 urritu direlarik. Zeharkako zergetan izan den lermarevn ondorioz, zuzeneko zergek osatu dute osoko diru-bilketaren gehiena. Hau da, diru-bilketan zuzeneko zergek zeharkakoen aldean izan duten pisu handiagoa ez du zerga-politikaren aldaketak eragin, zeharkako zergen gutxipen handiagoak baizik.

**Zerga itunduen ondoriozko diru-bilketa, zerga motaren arabera. Egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2008-2007.**

	2008		2007-2008
	Milioi €	%	Ald. %
ZUZENKO ZERGA	1.701,3	53,5	-5,1
ZEHARKAKO ZERGA	1.445,9	45,4	-18,2
GAINERAKOAK	34,3	1,1	-7,8
ZERGA, GUZTIRA	3.181,5	100	-11,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa*

Zuzeneko zergak aztertzean, errentaren jatorriari begiratzen badiogu, honako zifra hauek ateratzen zaizkigu:

- 1.046,3 milioi euro, hau da, zuzeneko zergen %61,5, lan-errenten PFEZren bitartez.
- 596,7 milioi euro, hots, zuzeneko sarreraren %35,1, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten bidez. Zehazki:
  - Sozietateen gaineko Zergak 419,3 milioi euro erakarri ditu, alegia, zuzeneko zergen ondoriozko bilketaren %24,6.
  - Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZren bitartez, 177,5 milioi euro jaso dira, hots, zuzeneko zergen %10,4.

PFEZren barruan, lanaren errentak dira aurreko urtealdian baino bilketa handiagoa eragin duten bakarrak (2007an baino %10,6 handiagoak). Enpresarien errentek %19,8ko gutxipena izan dute 2007koaren aldean, baina jaitsiera hori Sozietateen gaineko Zergan izan den urripenak (%29,3koak) bakarrik eragin du. PFEZk zerga-



petzen dituen enpresa-errenten ekarpena 2007an baino %17,8 handiagoa izan da 2008an.

**Zuzeneko zergen ondoriozko bilketa, zerga mota kontuan hartuta. Egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2008-2007**

	2008		2007-2008
	Miloi €	%	Ald. %
LANAREN PFEZ	1.046,3	%61,5	%10,6
- SOZIATEEN GAINENKO Z.	419,3	%24,6	-%29,3
- ENPR., PROF., KAP. PFEZ	177,5	%10,4	%17,8
ENPR., PROF., KAP. ERRENTAK(*)	596,7	%35,1	-%19,8
BESTE BATZUK	58,3	%3,4	-%43,2
ZUZENENKO ZERGA, GUZTIRA	1.701,3	%100	-%5,1

*Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa*

### Ondorioak

1.- Zerga itunduen ondoriozko diru-bilketa 2007an baino %11,5 txikiagoa izan da 2008an.

2.- Bilketan izandako gutxipen horren arrazoi nagusia Sozietateen gaineko Zergan izandako beherapen garrantzitsua izan da, zalantzarik gabe.

Sozietateen gaineko Zergan jazotako urripena enpresen mesedetan ondoz ondo egiten ari diren zerga-erreformen ondorioa da. Zehatz esateko, 2008ko urtealdirako, enpresa handiei (9 milioi euro baino gehiagoko negozio-zifra dutenei) 2,5 puntuko beherapena egin zitzaion zerga-tasan; 1 eta 6 milioi euro arteko negozio-zifra duten enpresentzako gutxipena 4,5 puntukoa izan zen, eta 1 milioi eurotik beherako negozio-zifra duten enpresentzako, berriz, 1 puntukoa.

Gainera, enpresek 2008ko ekitaldian ordaindu duten zerga 2007ko mozkinen gainekoa izan da; beraz, zerga-bilketa urriagoa ezin da inola ere lotu oraingo egoera ekonomikoa-rekin, zergapetutako mozkinak oraingo gainbehera hasi baino lehenagokoak direlako.

3.- BEZaren ondoriozko diru-bilketa txikiagoa zerga horretan egiten den iruzur fiskal handiaren isla da. BEZak, hau da, kontsumoaren gaineko zergak, 2007an baino %23,1 gutxiago-

ko bilketa eragin du, nahiz eta kontsumoak, epealdi berean, %0,3ko gutxipena baino ez izan.

4.- Bestalde, azpimarratu behar da bilketa handiagoa eragin duen zerga bakarria PFEZ izan dela, bai lanaren errentei (%10,6ko gehikuntza), bai profesionalenei dagokienez.

5.- Zuzeneko zergak zergadunaren ahal ekonomikoaren arabera ordaintzen dira. Mota horretako zergek eragin duten bilketari erreparaturik, Administrazio Publikoak jasotzen dituen 100 eurotik 61,5 lanaren errentetatik datoz, eta 35,1, ostera, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetatik.

Aipatutakoa oraingo zerga-politika bidegabearen erakusgarrietako bat baino ez da. Izan ere, zerga-bilketa eta aberastasunaren banaketa alderatuz gero, haxe ikusten dugu: bildutako diruaren %61,5 lanaren errentetatik dator, eta %35,1, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentetatik; aitzitik, aberastasuna banatzean, soldatkoen ordainsariei %44,1 esleitzen zaie, enpresarien errentek (ustiapen-mozkin gordina) %44,6 daramatelarik. Hortaz, aberastasunaren banaketan, langileei gutxiago egokitzen zaie, zergetan gehiago ordaintzen duten arren, eta enpresarien errentek, aldiz, aberastasunaren zati handiagoa eramaten dute, nahiz eta zergetan gutxiago ordaindu.

## **2. ZERGA ITUNDUEN BILKETA NAFARROAN. 2009KO URTARRILA-MAIATZA, 2008KO EPEALDI BERDINAREKIKO**

2009ko lehen 5 hilabeteetan Nafarroako Ogasunak 1.069,1 milioi euro bildu ditu, 2008ko epealdi berdinean baino %3,18 gutxiago. Era honetara, 2008an izandako bilakaera txarrak jarraitu egiten du.

2009ko lehen 5 hilabeteetan bilketa gehitu duen zerga bakarria Sozietate gaineko Zerga izan da (%8,5 gehiago). Hala ere, datu hau ez da adierazgarria, zerga honengatik bildutakoaren %80a baino gehiago berau aitortzerakoan lortzen baita, hau da, uztailean. Beste zergen bilketa murriztu egin da. Zehazki, BEZaren bitartez %16,5a gutxiago bildu da, Zerga Berezien bidez %5,4 gutxiago, eta PFEZaren bidez %5,1 gutxiago.

**Zerga garrantzitsuenen ondoriozko diru-bilketa, zerga mota kontuan hartuta, egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2009-2008 urtarrila-maiatza**

	2009		2008-2009
	Miloi €	%	% Ald.
PFEZ	410,9	38,4	-5,1
BEZ	251,4	23,5	-16,5
ZERGA BEREZIAK	171,6	16,1	-5,4
SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA	60,4	5,6	8,5
RESTO	174,8	16,4	X
TOTAL	1.069,1	100	-3,18

*Iturria: Nafarroako Gobernuak publikaturiko informazioa*

2008ko lehen 5 hileekiko bilakaerak murrizketa erakusten du bai zerga zuzenetan (%4,4a), zein zeharkakoetan (2,3%).

**Zerga itunduen ondoriozko diru-bilketa, zerga motaren arabera. Egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2009-2008 urtarrila-maiatza**

	2009		2008-2009
	Miloi €	%	% Ald.
ZERGA ZUZENAK	490,4	45,9	-4,4
ZEHARKAKO ZERGAK	565,7	52,9	-2,3
TASAK ETA BESTELAKOAK	13,0	1,2	6,8

*Iturria: Nafarroako Gobernuak publikaturiko informazioa*

**3. ZERGA ITUNDUEN PRESIO FISKALA NAFARROAN. 2008KOA ETA 1998KOAREKIKO BILAKAERA**

2008an, zerga itunduen presio fiskala BPGd-aren %18,6koa izan da. Horrek adierazten du 2008an Nafarroako ekonomian sortutako 100 eurotik 18,6 mota horretako zergak ordaintzera bideratu direla.

Presio fiskala 2007an (%19,5) baino 0,9 puntu urriagoa izan da. 2007ko presio fiskalari buruz izan den beherapen horrek honako irakurketa hau ere badu: presio fiskala 2007ko mailan geratu balitz, 2008an 175.244 € gehiago bilduko ziren.

Aurreko urtealdietako bilakaera irregularra izan bada ere, berez, 2008ko presio fiskala 1998koa (BPGd-aren %19,6) baino txikiagoa


izan da. 1998ko presio fiskalari eutsiz gero, 2008ko zerga-bilketa 194.715 € handiagoa izango zen.

Beraz, gorabehera txikiak badaude ere, Foru Erkidegoan zerga itunduen presioak beheranzko joera argia agertzen du.

Zuzeneko zergen presio fiskala %9,9koa izan da, alegia, 2007koa baino 0,2 puntu handiagoa, eta zeharkako zergena, berriz, %8,4koa, hots, 2007an baino %1,2 txikiagoa. 1998ko presio fiskalarekin erkatuta, zuzeneko zergen pisua handitu egin da, %8,2tik %9,9ra (1,7 puntu), hain zuzen ere; zeharkako zergen pisua, ordea, 2,7 puntu gutxitu da (%11,1etik %8,4ra).

Azken urteetan, zuzeneko zergen presio fiskalak zeharkako zergena baino handiagoa izateko joera ageri du. Ildo horretan, 2008an, lehenengo aldiz, zuzeneko zergen presioa zeharkakoena baino nabarmenki handiagoa izan da (1,5 puntu). Joera hori, hala ere, ez da zerga-politika bidezkoago egiteko aldaketan ondorioa.

#### Zerga itunduen presio fiskala, guztizkoa, zuzenekoena eta zeharkakoena. Nafarroa, 1998-2008 (BPGd %)




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako informazioan oinarrituta.

Errenta mota bakoitzak zuzeneko zergen bidez jasaten duen presio fiskala honako hau izan da:

- Lanaren PFEZrena BPGd-aren %6,1koa izan da, 1998tik 1,3 puntu eta azken urtealdian zehar 1 puntu hazi ondoren.
- Enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren errentena BPGd-aren %3,5koa izan da, 1998koari buruz 0,3 puntu eta 2007tik 0,5 puntu handitu delarik:
- Sozietateen gaineko Zergaren presioa BPGd-aren %2,4koa izan da, hots, 1998koa bestekoa, eta 2007koa baino 0,8 puntu txikiagoa.
- Enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioa, BPGd-aren %1koa, 0,1 puntu hazi da 1998koarekiko, eta 0,2 puntu 2007koari buruz.

Zuzeneko zergen presio fiskalaren hazkundera lanaren PFEZren gehikuntzaren ondorioa da batez ere, nahiz eta enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren PFEZ ere hazi den. Aitzitik, enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren errenten multzoaren presio fiskalak gutxipen nabaria izan du 2008an.

**Zuzeneko zerga itunduen presio fiskala.  
Nafarroa, 1998-2008 (BPGd %)**




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako informazioan oinarrituta.

Zeharkako zergen presio fiskala 1998ko %11,1etik 2008ko %8,4ra beheratu da:

- BEZarena, BPGd-aren %5,3koa, 2,2 puntu gutxitu da 1998koari buruz, eta puntu bat, aurreko urtealdikoarekiko.
- Zerga Bereziak, 1998koarekin alderatuta, 0,4 puntu urritu da, %2,4koa izan baita, 2007koa baino 0,1 puntu handiagoa, alegia.

Beraz, zeharkako zergen presio fiskalaren gutxipena BEZak eragin du bakar-bakarrik.

### Zeharkako zerga itunduen presio fiskala. Nafarroa, 1998-2008 (BPGd %)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako informazioan oinarrituta

#### Ondorioak

- 1.- Nafarroan zerga itunduen presio fiskala BPGd-aren %18,6koa izan da 2008an; horrek adierazten du 1998tik aurrerako joera beheranzkoa izan dela, aurreko urteetako bilakaera aldakorra izan bada ere.
- 2.- Zeharkako zergen presio fiskalaren beherapenak eta zuzeneko presioaren hazkundera eragina, zuzeneko zergen presioa zeharkako zergenarekin baino beherago jaitsi da. Baina, lehen esan dugunez, horren arrazoia BEZaren pisua izan duen gutxipen handia izan da. Halaber, ez da aipatu

gabe utzi behar zerga horretan egiten den iruzur fiskala, zerga-bilketan izandako beherapen bizia ez baitator bat kontsumoaren bilakaerarekin.

3.- Zuzeneko zergen presioaren hazkundera lanaren errenten PFEZk eragin du batik batik. Sozietateen gaineko Zerga eta enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten gainekoa nabarmenki urritu dira. Sozietateen gaineko Zergaren ondoriozko diru-bilketa txikiagoa ez da abagune ekonomikoaren ondorio izan, zergetan ondoz ondo onartu diren beherapenek eragindakoa baizik. Horrez gain, gogora ekarri behar dugu Sozietateen gaineko 2008ko Zergan aitortutakoa 2007an lortutako mozkinak direla, hots, oraingo egoera ekonomikoa baino lehenagokoak.

4.- Zenbaketa orokorrean, pisua galdu duten zergak Sozietateen gainekoa eta BEZa izan dira. Aitzitik, lanaren PFEZk pisu handiagoa hartu du.

#### **4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PFEZ). NAFARROA, 2007KOA ETA 2001EKOAREKIKO BILAKAERA**

PFEZk pertsona fisikoek urtean zehar eskuratutako errenta zergapetzen du. Bera aztertzean ikus dezakegunez, 2007an aitortutako errentaren %78,9ren jatorria lanaren errentak izan dira; %7,1ena, enpresaburuen, profesionalen eta arte-jardueren errentak (errenta ekonomikoak), eta %14rena, gainerako errentak (kapital higigarriaren etekinak, kapital higiezinaren etekinak, eta Zati Orokorraren eta Bereziaren gehikuntzak).

Lan-errenten pisua handiago izan da 2007an (0,3 puntu), 2006koaren aldean, %78,6tik %78,9ra igaro da eta. Enpresariak, profesionalek edo kapitalak aitortutako errentek, alderantzi, %0,4ko pisua galdu dute, %7,5etik %7,1erakoa, hain zuzen ere.

Lanaren errentek PFEZn duten pisua 0,7 puntu urritu da 2001az gero, eta errenta ekonomikoena, berriz, 2,4 puntu, gainerako errenten pisua 3,1 puntu handitu den bitartean.

Hortaz, zerga horretan dagoen desoreka handia agerikoa da. Izan ere, lanaren errenten ekarpena zerga-bilketaren %78,9koa delarik, enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentena %7,1ekoa besterik ez da. Horri dagokionez, gogoratu behar dugu PFEZ bilketa handiena eragiten duen zerga dela.

**Errenta-iturriek PFEZn duten pisu erlatiboa (%).  
Nafarroa, 2001-2007**

URTEA	LANA	EKONOMIKOAK	GAINERAKOAK
2001	79,6	9,5	10,9
2002	80,7	9,1	10,2
2003	81,6	8,9	9,4
2004	81,3	8,5	10,2
2005	79,8	7,8	12,4
2006	78,6	7,5	13,9
2007	78,9	7,1	14,0
2006-2007	0,3	-0,4	0,1
2001-2007	-0,7	-2,4	3,1

*Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioa*

Lanaren ondoriozko errentak jasotzen dituztenek, batez beste, 23.362,5 € aitortu dituzte 2007an, profesionalak aitortutako 10.584,0 €-ko eta enpresarien 8.423,9 €-ko errenten aldean. Beraz, batez beste aitortutako lan-errentak, aitortutako errenta profesionalak baino 12.778,5 € handiagoak, eta enpresariak aitortutakoak baino 14.938,5 € gehiagokoak izan dira urte horretan.

**Kolektiboek batez beste aitortutako errenta (euro).  
Nafarroa, 2001-2007**

	LANA	PROFESIONALAK	ENPRESARIAK
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2005	21.157,8	10.602,1	8.296,4
2006	22.278,8	11.106,9	8.393,2
2007	23.362,5	10.584,0	8.423,9
2006-2007	1.083,7	-522,9	30,7
2001-2007	4.657,9	156,1	49,9

*Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioa oinarritzat hartuta*


Lanaren errentak dituztenek batez beste aitortutakoa 1.083,7 € gehiagokoa izan da 2007an, 2006an baino; enpresa-errentak aitortzen dituztenen kasuan, ostera, 30,7 €-koa izan da bi urte horien arteko aldea. Dena den, errenta profesionalak dituztenek, batez



beste, 2007an 2006an baino 522,9 € gutxiago jaso dituztela aitortu dute.

2001etik 2007ra, batez beste aitortutako lan-errenta 4.657,9 € handitu da, errenta profesionalen 156,1 €-ko hazkundearekin eta enpresariaren errenten 49,9 €-ko gehikuntza irrigarriarekin alderatuta. Era horretan, 2001ean errenta moten artean zegoen diferentzia areagotu egin da azken urteetan. Zehazki, batez beste aitortutako lan-errentaren eta errenta profesionalaren arteko aldea 4.501,8 € handitu da 6 urte horietan, eta batez beste aitortutako lan-errentaren eta enpresa-errentaren arteko jauzia 4.608,1 € handiagoa izan da epealdi horren buruan.

### Kolektiboek aitortutako batez besteko errentaren bilakaera (euro). Nafarroa, 2001-2007



*Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioa oinarritzat hartuta*

#### Ondorioak

1. Lanaren errentek PFEZn duten pisua (%78,9) errenta ekonomikoena (%7,1) baino askoz handiagoa da oraindik ere. Trataera ezberdin hori zerga-politikek eragiten dute, gero eta pisu handiagoa esleitzen baitiete lan-errentak aitortzen dituztenei, enpresariaren, profesionalen eta kapitalaren errentak aitortzen dituztenei pisua kenduz doazen aldi berean.

- 
2. Batez beste aitortutako lan-errenta profesionalak aitortutakoa baino 2,2 bider handiagoa da, eta enpresariak aitortutako errenta baino 2,7 aldiz handiagoa. Aitortutako errenta moten arteko aldea gero eta handiagoa da urtez urte: lan-errenten eta profesionalen errenten artekoa 4.501,8 € handitu da 2001etik 2007ra bitartean, eta lan-errenten eta enpresarien errenten artekoa, berriz, 4.608,1 € handiagoa izan da epealdi horren buruan.
  3. Argi dago lanarenak ez diren errentak dituztenek benetan eskuratzen dituztenak baino askoz diru-sarrera txikiagoak aitortzen dituztela.
  4. Datuok agerian uzten dute soldatakoak ez diren errentak aitortzen dituztenek egiten duten iruzur fiskal itzela, eta iruzurrak, halaber, zuzeneko lotura du Foru Erkidegoan egiten diren zerga-ikuskapen urriekin. Horrez gain, lanaren errenten eta gainerakoek arteko diferentzia urtez urte hazi egiten dela ikusirik, argi geratzen da zerga-iruzurra, urritu beharrean, gero eta handiagoa dela.
-

---

# EKONOMI ZAILTASUNEN EZAUGARRI ETA BILAKAERA NAFARROAN

## 0. SARRERA

Ekonomiaren oraingo egoerak atzean utzi ditu gehikuntzak eta, 2009ko lehenengo hiruhilekoan, zifra negatiboak agertzen ditu hazkundeari dagokionez. Egoera honen sorburua ez dira langileriaren gehiegikeriak (soldatak, gizarte-babesa,...), baina, zalantzarik gabe, bera ari da ondorioak jasaten. Aldi baterako lan-kontratuak ez berritzearen ondorioz, enpleguaren zati handi bat suntsitzen ari da, isil-isilean. Horrez gain, enpresak aitzakiatzat erabiltzen ari dira krisia, langileei txantajea egiteko, eta egoera honetatik ahalik eta etekinik mardulena ateratzeko. Eta gobernuek, gainera, kapitalaren interesen alde dihardute. Beraz, gauzak ondo joan diren bitartean, elite ekonomikoen onura bilatu da, eta txarrera egin dutenean, langileriak nozitzen ditu ondorioak.

Halaber, bereziki zaurigarriak diren gizarteko kolektiboek ere pairatu beharko dituzte krisiaren ondorioak: emakumeek, urritasunak dituzten pertsonak, etorkinek edo behartsuek, esaterako. Aurreko urteetan bizi izan dugun oparotasun ekonomikoak iraun bitartean gizarte-arazoak gainditu ez badira, ezer gutxi espero daiteke oraingo abagunean.

Dokumentu honetan Nafarroako Gobernuak 2 urterik behin argitaratzen duen Nafarroako Bizi Baldintzei buruzko Inkesta aztertuko dugu, eta bertan Nafarroako familien egoera ekonomikoari buruz agertzen diren hainbat datu esanguratsuri erreparatuko diegu. Era horretan, hilabete amaierara iristeko zailtasuna, diru-sarreraren maila, horrek guztiak osasun-egoeran duen eragina, eta beste zenbait xehetasun garrantzitsu jorratuko ditugu.

Gai horien inguruko azken informazioa 2007ko ekitaldikoa da, baina azterketak hilabete amaierara heltzeko zailtasunak 2003tik 2007ra bitartean izan duen bilakaeraren berri izateko aukera ematen digunez, ekonomia hazkunde betean ibili den urteetan aldagai horiekin zer gertatu den jakin ahal izango dugu.

## 1. EMAITZEN AZTERKETA

Etxeak aldagai ekonomikoen arabera aztertzean, honako emaitza hauek ikus ditzakegu, 2007ko urtealdiari buruz:

- Nafarroako etxeen %26,9ren diru-sarrerak maila baxukoak edo ertain-baxukoak ziren; %58,7renak, maila ertainekoak, eta etxeen %14,4tan baino ez zeuden bizi-maila ertain-altua edo altua ziurtatzeko moduko diru-sarrerak.
- Etxeen %7,2 zailtasun handiz heltzen zen hilabete amaierara, eta %32,4, nolabaiteko zailtasunez; hau da, etxeen %39,6 iristen zen estutasunez hilabete bukaerara. Etxeen %60,4 heldu zen hilabete amaierara arazorik gabe.
- Etxeen %90,3k diru-sarrera egonkorrak zituen, eta %9,7k, aitzitik, ez.
- Etxeen %16,1en egoera hobetu egin zen aurreko urtekoarekiko; %63,9renak berdin jarraitu zuen, eta %20renak okerrera egin zuen.
- Etxeen %35,3k dirua aurreztu ahal izan zuen aurreko 3 hilabeteetan; %64,7k, aldiz, ezin izan zuen ezer aurreztu, edo oso gutxi aurreztea izan zuen.

### Etxeen sailkapena, aldagai ekonomikoak kontuan hartuta. Nafarroa, 2007

Diru-sareren maila	Baxua eta ertain-baxua	% 26,9
	Ertaina	% 58,7
	Ertain-altua eta altua	% 14,4
Hilabete amaierara heltzeko...	Zailtasun handia	% 7,2
	Nolabaiteko zailtasuna	% 32,4
	Zailtasunik ez	% 60,4
Diru-sarrera egonkorrak	Bai	% 90,3
	Ez	% 9,7
Oraingo egoera, aurreko urtekoarekin alderatuta	Hobetu egin da	% 16,1
	Berdin jarraitzen du	% 63,9
	Okerrera egin du	% 20
Azken 3 hilabeteetan, aurreztu ahal izan du	Bai	% 35,3
	Ez, edo oso gutxi	% 64,7

*Iturria: Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkesta Egoera Ekonomikoa*

Bestalde, ondoko taulak erakusten duenez, etxeen osaerak eta diru-sarrerren mailak badute zerikusia euren artean; izan ere:

- Zainketak behar dituen pertsonaren bat duten etxeen kasuan, oro har begiratuta baino 14,7 puntu handiagoa da maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituzten etxeen portzentajea (%41,6).
- Pertsona nagusiren bat duten etxeen kasuan ere, guztizkoa baino handiagoa da diru-sarrera txikiak edo ertain-txikiak dituzten etxeen portzentajea (65 urtetik gorako nagusien kasuan %37,6, eta 70 urtetik gorakoak direnekoetan %39,1).

#### **Diru-sarrerren mailaren arabera sailkaturiko etxeak, beren egitura kontuan hartuta.**

		Maila baxua eta ertain-baxua	Maila ertaina	Maila altua eta ertain-altua
GUZTIZKOA		26,9	58,7	14,4
Zainketak behar dituzten pertsonak daude	Bai	41,6	50	8,4
	Ez	25,6	59,4	15
65 urte edo gehiagoko pertsonak daude	Bai	37,6	53,1	9,3
	Ez	20,9	61,8	17,3
70 urte edo gehiagoko pertsonak daude	Bai	39,1	52,8	8,1
	Ez	22,2	60,9	39,1

*Iturria: Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkesta Egoera Ekonomikoa*

Generoak eta familiaburuaren jarduerak ere badute eragina bai diru-sarrerren mailan, bai hilabete amaierara heltzeko estatus-mailan. Hona hemen:

- Diru-sarrerei dagokienez:
  - a) Maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituzten etxeen portzentajea guztizkoa baino 9,6 puntu handiagoa da etxeko burua emakumezkoa den kasuetan (%36,5).
  - b) Familiaburua erretiratua, jubilatua edo pentsioduna deneke etxeen %35,1ek izan zituen maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak (8,2 puntu, guztizkoaren gainetik). Etxeko zereginetan diharduten familiaburuak dituzten etxeetan ere, oro har begiratuta baino okerragoa da egoera: haietako %55,4k ditu maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak. Familiaburua langabezian duten etxeen

egoera are makalagoa da oraindik, haietako %74,4 baitira maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituztenak.

- Hilabete amaierara heltzeko zailtasunari buruz:
  - a) Hilabete amaierara zailtasunez heltzen diren etxeen portzentajea 6,8 puntu handiagoa da familiaburua emakumezkoa den kasuetan (%46,4).
  - b) Hilabetea zailtasunez amaitzen duten etxeen portzentajea 11,7 puntu handiagoa da, familiaburuak etxeko zereginean diharduen kasuetan (%51,3). Eta egoera are txarragoa da familiaburua langabezian duten etxeen kasuan, non hilabetea amaitzeko zailtasun-probabilitatea %81,4koa den, alegia, guztizkoa baino 41,8 puntu handiagoa.

**Etxeen diru-sarreraren maila eta hilabete amaierara iristeko zailtasun-maila, familiaburuaren berezitasunak kontuan hartuta. Nafarroa, 2007**

	DIRU-SARREREN MAILA			HILABETE AMAIERARA HELTZEKO...		
	Baxua eta ertain-baxua	Ertaina	Ertain-altua eta altua	Zailtasun handia	Nolabaiteko zailtasuna	Zailtasunik ez
GUZTIZKOA	26,9	58,7	14,4	7,2	32,4	60,4
Gizonezkoa	23,6	61,3	15,1	6	31,4	62,6
Emakumezkoa	36,5	51	12,5	10,9	35,5	53,6
Lanean	19,1	62,8	18,1	4,9	33	62,1
Langabezian	74,4	18,8	6,8	39,3	42,1	18,6
Erretiratua, jubilatua, pentsioduna	35,1	55,7	9,2	8,2	30	61,8
Etxeko zereginak	55,4	42	2,6	17	34,3	48,7

*Iturria: Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkesta.  
Egoera Ekonomikoa*

Hurrengo taulak erakusten duenez, diru-sarreraren mailak badu eragina osasun-egoeran, izan ere:

- Maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituzten pertsonen artean, osasun-egoera txarra edo hala-moduzkoa dutela diotenen portzentajea (%46,7) 22,2 puntu handiagoa da, maila ertaineko diru-sarrerak dituztenen kasuan (%24,5) baino.
- Aldea nabarmenki handiagoa da -30 puntukoa, hain zuzen-maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituzten per-

tsonen erantzunak maila altuko edo ertain-altuko diru-sarreak dituzten pertsonenekin erkatuz gero (hurrenez hurren, %46,7k eta %16,7k diote osasun-egoera txarra edo hala-moduzkoa dutela).

**Pertsonen osasun egoera, etxean azken 12 hilabeteetan izandako diru-sarreraren maila kontuan hartuta. Nafarroa, 2007**

Diru-sarreraren maila			
	Baxua, ertain-baxua	Ertaina	Ertain-altua, altua
Ona	53,3	75,5	83,3
Hala moduzkoa	30,2	18,8	12,5
Txarra	16,5	5,7	4,2


*Iturria: Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkesta. Egoera Ekonomikoa*

## 2. ZAILTASUNEN BILAKAERA

Ondorengo grafikoan, hilabete amaierara zailtasunez heltzen diren etheen portzentajeak 2003-2007 aldian izan duen bilakaera ikus dezakegu.

- Hilabete amaierara zailtasun handiz heltzen ziren etheen portzentajeak 2,8 puntuko gehikuntza izan zuen 2003tik 2005era bitartean, urte horretan etheen %7,2 hartzeraino. Portzentaje horrek konstante jarraitu zuen 2007an.
- Hilabete amaierara heltzeko nolabaiteko zailtasuna zuten etheen portzentajea 2003ko %29tik %29,2ra heldu zen 2005ean, eta %32,4ra, 2007an.
- Horrela, hilabete amaierara heltzeko zailtasuna duten etheen portzentajea ere etengabe hazi da, 2003ko %33,4tik 2005eko %36,4ra, eta hortik 2007ko %39,6ra, hain zuzen ere.

**Etxeen diru-sarreraren mailaren araberako sailkapena, aurreko urteetakoekin alderatuta. Nafarroa, 2003-2007**



*Iturria: Nafarroako Biztanleriaren Bizi Baldintzei buruzko 2007ko Inkesta. Egoera Ekonomikoa*

### 3. ONDORIOAK

2007an, Nafarroako etxeen egoera ekonomikoa kezkarria zen, batez ere, aldi horretako hazkunde ekonomikoa eta enplegu-sorreta handiak kontuan hartuz gero; zehazki:

- Etxeen laurdenek baino gehiagok maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak zituzten.
- Hamar etxetik lauk arazoak zituen hilabete amaierara heltzeko.
- Hamar etxetik batean ez zegoen diru-sarrera egonkorrik.
- Hamar etxetik bitako egoerak egin zuen okerrera, aurreko urtekoarekin alderaturik.
- Aurreko 3 hilabeteetan, hamar etxetik hiruk bakarrik ahal izan zuten aurreztu.

Gainera, ikuspegia are latzagoa da zainketak behar dituzten pertsonak eta pertsona nagusiak bizi direneko etxeetan. Era berean, diru-sarreraren maila eta hilabete amaierara heltzeko zailtasuna ere okerragoak dira, familiaburua emakumezkoa, langabea, erretiratu, jubilatua, pentsioduna edo etxeko zereginetan diharduen norbait den kasuetan.



---

Hori dena gutxi bailitzan, osasun-egoera txarra edo halamoduzkoa duten pertsonen portzentajea ere oro har baino handiagoa da maila baxuko edo ertain-baxuko diru-sarrerak dituzten etxeen sailean. Oraingo krisialdi ekonomikoak, dudarik gabe, okertu egingo du etxeetako egoera, eta pobreziaren eta gizarte-bazterketa-  
ren hazkundera ere ekarriko du, Nafarroako Gobernuak pobreziaren kontra abiarazitako politikaren eraginkortasunik eza oraindik argiago agertarazteko.

---

# “NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA, S.L.U.” SORTZEAREN INGURUAN ELA-REN BALORAZIOA

## 0. SARRERA

Gaur egun, kapital publikoko enpresa pribatu ugariaren parterik handiena Nafarroako Gobernuarena da zuzenean. Izaera eta jardun pribatuko enpresa horiek diru publikoz sortu dira.

Enpresa horiek Administrazio Publikoari dagozkion zereginak betetzeko eginkizuna dute, zerbitzu publikoak privatizatzeko beste bide bat itxuratzen dutelarik.

2007an (Kontuetako Ganberak argitaratutako azken datuen arabera), kapital publikoko 32 enpresa pribatu zeudela, guztira 1.092 langile ibili ziren beraietan lanean, eta 12 milioi euroko mozkinak lortu ziren denera. Enpresa horietako hirutan, langile bat ere ez dago, eta beste 19tan, 25 lagun baino gutxiago dabilta lanean, nahiz eta beraietako guztiak Administrazio Kontseilu bana baduten.

2007an, aipatutako enpresa horietako 20k 27 milioi euro jaso zituzten diru-laguntzetan, milioi horietatik 25, Nafarroako Gobernutik, hain zuzen ere.

Kontuen Ganberak aipaturiko enpresa hauen tartean, hiru gizarte-xede bakarrik betetzeko, 18 enpresa eratu dira; horrek esan nahi du hainbat enpresak dihardutela xede bereko zereginetan (lurzoruaen sustapenean, 7 enpresa ari dira; industria sustatzen, 6, eta informatika-gaietan, 5 enpresa).

Kontuetako Ganberak hainbat aldiz premiatu du Nafarroako Gobernu, enpresen esparru hori antolatu eta berritxuratu dezan (2006ko eta 2007ko Kontu Orokorrei buruzko Txosten Orokorretan, eta Administrazioaren Enpresa Publikoei buruzko 2008ko Fiskalizazio Txostenean, besteak beste).

---

---

2009ko martxoak 24ko Nafarroako Legebiltzarreko Buletinean gai honen inguruko lehen Lege Proiektua argitaratu zen, kapital publikoko enpresa pribatuak erregulatzeko asmoarekin, bertan esaten zenez.

Honen ondoren, eta Legebiltzarreko zuzenketen tramitea igarota, Foru Legea onartu da.

Hala ere, eta benetako aldaketa bat ematetik urrun, onartutako zuzenketak aldaketa txikiak izan dira, eta lehen Lege Proiektua mantendu da funtsean.

## 1. FORU LEGEAREN EDUKIA

Foru Legeak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” deritzona sortzea aurreikusten du. Sortu nahi den sozietate berrian, Nafarroako Gobernuaren zuzeneko partaidetza duten kapital publikoko beste enpresa pribatuak sartuko dira.

Enpresa berria ondarearen arloko eskumena duen Departamentuaren menpe egongo da, eta horrexek izendatuko du beraren Administrazio Kontseilua, bai eta, beraz, enpresa zuzenduko duten pertsonak ere. Hauen herena Legebiltzarrean proposaturikoak izanen dira, beste heren bat, Gobernuak proposaturikoak, eta azken herena “profesional independenteen” artean hautaturikoa izanen da. Honela, Administrazio Kontseiluko lehendakaria ondatzen arloko eskumena duen Kontseilaria izanen da.

Sozietatea bi sektore bereiziz antolatuko da: “Administrazioaren Sektorea” eta “Lehiakortasunaren Sektorea”, alegia. Lehenengoaren barruan, interes publikoko jarduerak garatzen dituzten enpresak egongo dira, eta “Lehiakortasunaren Sektorean”, berriz, industrian edo merkataritzan diharduten enpresak.

Legearen erantsietan, Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen 109 enpresa zenbatu daitezke. Hauek, gehiengoz parte harturikoak diren edo ez, eta zuzenean edo zeharka parte hartutakoak bereiziz banatzen dira.

Legebiltzarreko kontrolari dagokionean, Korporazioarentzat, agertze bakarra ezartzen da urtean, Legebiltzarreko Ekonomia Komisioaren aurrean, eta agertze gehiagoren aukera. Hala ere, zehazki ezartzen da “Administrazioaren Sektorearen” jarduna Legebiltzarrearen Kontrolpean egotea, gai bakoitzerako ezartzen den moduan. Beraz, sektore bakoitzean ezberdina izanen da

---

Legebiltzarrak egingo duen kontrola, Lehiakortasunaren Sektorean askoz txikiagoa eta orokorragoa izanen delarik.

Bestalde, nahiz Foru Lege honetan, nola Ondarearen gaineko Foru Legean (14/2007 Foru Legea) sozietate publikoa izateko, %50eko partaidetza baino handiagoa izatea behartzen du Nafarroako Gobernua, eta gutxiengoan parte hartzen duen enpresak, ez dira sozietate publikotzat hartzen.

## 2. ELAREN BALORAZIOA

2.1. Kapital publikoko enpresa pribatuak egotea kritikagarria da berez. Baina Administrazio Publikoak enpresa pribatuak sortzea eta enpresa horiei Administrazioak egin beharreko lanak eta betekizunak esleitzea guztiz onartezina da, politika publikoen aldeko edozein pentsamolderen arabera.

Horrela, Administrazio Publikoaren eskumeneko ekintzak pribatizatzea lortzen da. Pribatizazioak enpresa horietan ipinitako partikularren eskuetan uzten du Administrazioak gauzatu beharko lituzkeen zerbitzu eta eginkizun publikoen kudeaketa.

Kontuetako Ganberak berak ere adierazi du horrelako enpresak salbuespen izan beharko luketela.

2.2. Izatez, hauxe bermatzen da era horretako enpresak sortuz: kargu publikoentzako eta agente politikotik hurbil dagoen jendearentzako tokia (Kontuetako Ganberak adierazi duen legez), hain zuzen ere, beraietako administrazio-kontseiluetan eta gainerako ardura-postuetan aritzeko, Administrazioaren inolako kontrolik pasatu gabe, gainera.

Erabateko enpresa-gune hori agente politikotik hurbileko jendearen eskuetan jarriz (askotan, Gobernuako kide eta kargu publikodunak tartean), bertan ipini dituztenen interesen alde jokatu duen lobbya eratzen da.

2.3. Bestalde, Nafarroako Gobernuak era horretako enpresen bidez saihestu egiten ditu Administrazioko prozeduraren mugak, Administrazioaren edozein jarduketaren gainean egoten den kontrol administratibo eta formal orotatik itzurtzearren. Hau da, enpresa pribatuak erabiliz, saihestu egiten ditu Administrazioko kontrolak. Horrek irregulartasunak gertatzeko arriskua dakar.

---

- 
- 2.4. Legearen eranskinetan Gobernuak parte hartzen duen enpresak ageri dira, 109 enpresa denera. Hala ere, Lege honek gehiengoan parte harturiko enpresak tratatzen ditu, 45 denera. Honela, parte hartzen den enpresen gehiengoaren inguruko erregulaziorik ez da ematen.
- 2.5. “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” sortzea ez da Nafarroako Gobernuak daukan eta Kontuetako Ganberak hainbat aldiz adierazi duen enpresa-nahaspila zuzentzeko irtenbidea. Gainera, korporazioan ez dira sartuko une honetan kapital publikoz eratuta dauden enpresa pribatu guztiak. Halaber, enpresa horietako batzuk beste sozietate berri batean elkartu eta bi multzotan zatitzeak ez du anabasa-egoera hobetuko. Xede bererako sortutako hainbat enpresak jarraituko dute jardunean, bai eta Administrazio Kontseilua bai baina langile bat ere ez dutenek ere. Hortaz, bere horretan segituko du “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.” sozietate berria sortu baino lehenagoko enpresa-gehiegikeriak.
- 2.6. “Lehiakortasunaren Sektorea” deiturikoan sartzen diren enpresak Administrazioaren kontrolpetik kanpo geratzeaz gain, izango duten Legebiltzarraren Kontrola testigantzazkoa izango da soilik, Gobernuak hauen bitartez buruturiko jarduera aztertzeko ez nahikoa suertatuko dena.
- 2.7. Azkenean onarturiko testuak, ez du Lege Proiektuak biltzen zuen “Lehiakortasunaren Sektorean” sartzen dituen enpresetako langileen lan-eskubideen zapuzketa ezartzen, itundutako asteko 35 orduko lanaldia ez aplikatzearena. Honen arrazoia gizarteak eragindako presioa izan da. Dena den, enpresa horietako langileek, Administrazioarentzat dihardutenez, Administrazioako langileen trataera bera izan beharko lukete. Modu horretan, kontratazioak eta lan-baldintzek Administrazio Publikoko gainerako langileentzat xedatutako berberak izan beharko lukete.
- Baina, Nafarroako Gobernuak darabilen privatizazioa medio, kapital publikoko enpresa pribatuetan lan egiten duten guztiek Administrazio Publikoan diharduten langileenekin antzik ere ez duten kontratazio- eta lan-baldintzak jasan behar dituzte.

